ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2020

26/2020 EBAZPENA, otsailaren 25koa
22/06/2020

EUSKAL HIZKUNTZA

EPAI MAHIA ZBKº1

KALIFIKAZIOA

DEITURAK: .....

IZENA: .....

NANa/AIZ: .....

Gizateria birrinduko duen apokalipsiaren trailerrak eskaintzen zaizkigu eta susmoa dut benetakoak ez gaituela batere harrituko.

Australiako suteak eta ekaitz izugarriak. Gerra globalak pizteko beldurrik ez duten agintari ahoberoak. Egunetik egunera sortzen diren pandemiak. Azken honek emanen du zeresana oraindik ere.

Filmek ohitura txarra sortu digute: mundu guztiak badaki azkenean gizadia salbatuko dela, oraingoan hartutako babes neurriei Erdi Aroko usaina hartu diegun arren, hiri oso bat berrogeialdian jarrita, iltzez eta giltzez itxita.

Urtezahar txinatarreko ospakizunak eta haiek eragiten dituzten lekualdatzeak zuzendariaren erabaki ona izan dira filmaren tentsioa areagotzeko. Mila lagunentzako ospitalea hamar egunetan eraikitzearena nik kenduko nuke muntaketatik, egia izan arren (eta ez dakit oso ongi zeren erakusgarri), ez baita sinesgarriegi suertatzen. Oraindik erabakitzeke dago hondamendia korporazio handien erantzukizuna izan daitekeelako hari konspiranoikoari heltzea, filmaren hasieran, edo gizabanako baten arduragabekeriari. Egun batean ohartuko gara, edo ez, koronabirus asiarrak notizia izateari utzi diola.

Hurrengo apokalipsiaren estreinaldiaren zain geldituko gara.

Angel ERRO, 2020ko urtarrilren 26a, *Berria*

1. IZENBURUA. Ipini izenburua testurari (p1).
2. GAIA / ESANAHIA.
   a) Zein da testuraren gaia? Arrazoitu (p1) .
   b) Berridatz ezazu azpimarratuta dagoena esanahia aldatu gabe (2p) .
3. EGITURA (2p).
4. LABURPENA (2p) .
5. TESTU MOTA (1p).
6. ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (1p).